Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

EUSKARAREN HIRIA DONOSTIA

8

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzarra - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

2017ko otsailaren 1ean argitaratu zuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2017 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2015-2019) garatzeko edota osatzeko 2017. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak.

2017. urteko deialdian bi atal bereizi dira: bata, auzoetako plan integralak, 31.500 eurorekin hornitua, eta bestea, jarduera zehatzak, 15.525,35 eurorekin hornitua.

Kasu honetan, auzoetako plan integralei zuzendutako proposamena bakarrik egingo da. Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak aztertu eta diru laguntzen banaketa egiteko erabilitako irizpideak kontuan harturik, irabazi asmorik gabeko elkarteen emakidak zehaztu dira, oinarri orokorretako III. atalean zehaztatutako prozedurari jarraiki. Horrela, izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak dagozkion txostenak egin ditu. Dokumentu honi erantsita doaz balorazio irizpideak eta entitate bakoitzari emandako puntuaketa. Espedientearen eta Balorazio Batzordearen txostenen argitan izapidegileak behin-behineko proposamenak egin ditu.

Oinarri orokorretako 9. artikuluan zehaztutakoarekin bat, behin-behineko ebazpen proposamena egin ondoren interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Ez da inolako alegaziorik jaso.

Horrenbestez, 2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkariak, Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen dio honako erabaki hau onar dezala:

ERABAKIA:

1) Ondorengo elkarteei taulan azaltzen diren diru laguntzak ematea, 2017ko otsailaren 1eko GAOn argitaratutako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2017. urteko diru laguntzen 8. eranskinean, Euskara Zerbitzuaren deialdiari, auzoetako plan integralei, dagozkienak.

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net – www.donostia.org
20003 Donostia

Entitatea	IFZ	Proiektua	Lortutako puntuak	Diru laguntza kopurua
Intxaurrondo Plazara goaz	G20715371	Elkarguneak 2017	89	**7.783,40 €**
Loiolako Erriberatako auzo elkartea	G20934295	Loiolako Erriberan euskaraz	86	**1.923,60 €**
Amara Berriko Berritsu euskara elkartea	G75168658	Amara Berrin euskararen erabilera sustatuz	92	**3.291,47 €**
Altza-Bizarrain	G20754834	Altzan euskara garatzeko jarduera eta egitasmoak	91	**5.268,63 €**
Eltzegor Euskal kultur elkartea	G20900205	Bidebieta auzoko euskararen normalizazioa	75	**1.701,21 €**
Añorga kultur eta kirol elkartea	G20189601	Añorga euskara sustatzeko plan integrala	82	**1.941,25 €**
Kriseilu Begera elkartea	G20715918	Egian euskaraz bizi nahi dugulako	87	**2.757,39 €**
Sarroeta auzo elkartea-Martutene	G20403408	Martutenen euskara sustatzeko plangintza integrala	76	**2.166,46 €**
Aieteko Euskara Batzordea	G75144204	Aieten euskararen erabilera sustatzeko plangintza integrala	73	**2.177,76 €**
Sustrai Aisialdi elkartea Loiola	G75090910	Loiolako euskararen egoera areagotzeko plan integrala	73	**950 €**
Morlanstarrak auzo elkartea	G75076026	Morlanseko euskara plana	72	**1.538,83 €**

2) Erabaki hau Udaleko Web gunean eta udal iragarki-oholean **argitaratzea.**

3) Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran. Hau da, diru laguntzaren %70 behin betiko emakida onartzen den unean bertan ordainduko da, arauzko izapideen arabera, eta gainontzeko %30a diruz lagundutako programaren edo jardueraren zuriketa egiterakoan. Zuriketa hau diru laguntzen deialdiaren 16. artikuluan jasotzen den dokumentuen bidez egin beharko da 2018ko urtarrilaren 31 baino lehen.

4) **Gastua (31.500 €**) 2017ko gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara Zerbitzuko 481.01 kontu sailari **egoztea.** ("A" 73-2017)

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

EUSKARAREN HIRIA DONOSTIA

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net – www.donostia.org
20003 Donostia

Donostian, 2017ko abuztuaren 22an

2016 HIRIBURUTZAKO, KULTURAKO, EUSKARAKO ETA HEZKUNTZAKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

Sin.: Miren Azkarate Villar

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

Iz.: Edurne Otamendi Garmendia

EUSKARA ZERBITZUKO ORGANO IZAPIDEGILEA

Iz: Mikel Zumarraga Luzuriaga

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2017 ABU. AGO. 31

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta.

KONTABILIZATUA / CONTABILIZADO

Erreferentzia: / Referencia: "D": 31170/2-4/80-2